

ALFABETATZEA (3)

Euskaldunok analfabetoak gero. Hau entzutean asko trunditu egingo dira, edo asarretu (danetik dago-eta). Baina egia hutsa da. Euskaldun gehienek ez dakite euskeraz irakurtzen, gutxiago idazten. Analfabetoak, beraz.

Maiz aipatu dugu idazlearen eta herriaren arteko lokarri hori gorde beharra dagoela, idazlearen lana bera halintzat hartzea nahi bada. Ikastola-rekin batera, alfabetatzea etorri da hutsu hori betetzera.

Rikardo Arregirekin mintzatu naiz, Rikardo baid kanpaña honen eragile nagusia. Berak bakarrik dakizki, arazo honekin, eman dituan hitzaldiak, egin dituan ibilaldiak. Eta hartu dituan buruausteak.

—Noiz hasi zan kanpaña hau, Rikardo?

—Proiektioa, 66-koaren hilbertzean, Jarrakoek presentatu zuten. Nik presentatu nuan Euskaltzaindian, bostek izenpetua. Aurreneko komisio hortan asko ziran. Baina Inork ez zuan kolperik jotzen. Eta ni, handik gutxira, soldadutzara joan nintzan.

—Eta artean?

—Begoña Arregi nere arrebak, Mari Karmen Garmendiak, eta Arantxa Saizarbitoriak zuzendu zuten.

—Jakin al liteke nola hasi ziran?

—Zenbait zuzenbide hartu zituzten: Baserri-Gaztedikoan, Euskal-folklore eta beste zenbait taldekoenak; eta hotel asmoa agertu, barri emanaz. Ondoren, 67-ko udan lehengo kursilloa ospatu genuan Donostian. 50 bat etorri ziran, Berastegi, Andoain, Zumaia, Tolosa, eta Donostia bertatik. Hotel alfabetze-karneta eman genien, baina ezer gutxi egin dute beren herrietan.

—Eta gerora ere Donostian bilduaz jarraitu al duzue?

—Ballaraka egitea hobe zala erabaki genuan. Eta horrela, Zestuan (Urola), Bergaran eta Beasainen (Goierri) egin ditugu besteak.

—Gaur zertan zaudete, ze etapan?

—Organizazioa sendotzen. Ez dugu nahi organizazio berri bat izatea, bat gehiago. Uste dugu ballararako antolamenduekin kontatu behar dala. Baina direzko bat ez badago, ez dago aurrera egiterik.

—Nola muntatu duzute zuen «organizazio» hori?

—Hiru zatitan: antolamendu ofiziala (Irigaray eta biok) —mailla teknikoak— herriko mailla.

—Mailla teknikoak zer da, Rikardo?

—Izenak dionez, hartuemanak eta gainontzeko teknika-lanak oro aurrera eramateko ofizina. Prim kaleran dugu, jarri herria. Honek diru-problema sortzen du. Hemen gertatzen dana da lanean dabilenak pagatu behar duala.

—Kanpaña honetan hasieran pentsatutako martxan al zoazte?

—Mantxoago. Konturatu gera ez dala lana hain erreza eta ez da goala horren presaka josterik.

—Ikus zagan herri-mailla: Euskal-erria, zuen lanerako, herrialdeetan banaturik duzute, ezta? Nun?

—Batez er Gipuzkoa eta Bizkaia. Baina gurea euskalki banaketa politikakoa baino gehiago da.

—Gaur daukazuten prolema nauetak zeintzuk dira.

—Bi eratakoak: lehendabizi, alfabetatzeak sentidua «masaka» eginaz bakarrik hartzen duala. Eta masaka egiteko propaganda beharra dugu, eta hontarako diru-beharra. Propaganda zabal bat ez bada egin, lehendik kutsuturikoak bakarrik etorriko dira. Eta beste denak? Eta bigarren, irakasleak behar ditugu, liberatuak behar ditugu. Zaila da, guk daukagun jendea herriko jendea baid eta bere eguneroko lana bukatu ondoren egin behar baldute beste edozein eginkizun.

—Gaurkoz nola konpontzen zerate?

—Beti da apaizgai izandako edo apaizen bat.

—Urrengo asmoak?

—Kursilloak berrituz Bergaran, Urolan eta Goierri egitekotan gaudela. Nahi genduke udan bildu responsibleak eta organizazio naiko finkatua izanena da eta datorren kursoko kanpaña nahi genduke eratu.

—Alfabetatzea irakasle batek eman ohi du herri bakoitzean. Eta irakasle izateko karnet bat ematen duzute. Zer eskatzen zaio alfabetatzaileari, karnet hori lortu nahi duanari?

—Reglamendu bat ba dago: Kursillo bat pasatu beharra. Zer erakusten zaion? Irakatsi behar dituzten irakur-zatiak ententzen, eta Konferentzi batzuk ere ematen zaizkie. Egia esan, zer erakutsi behar zaion proiektioa estudiolan dauka batzorde tekniko batek. Aurrerantzean, gramatika, pedagogia, eta munduan alfabetatzea, nahiz giro differentetan, nola egin dan jakitea eskatuko zale. Gero esamina eta kontrola.

—Karnet hori betiko al da?

—Bi urterako. Eta zuzendaritzak berritzen ez badu, ez du halio.

—Zenbat karnet banatu dituzue orainarte?

—200 bat. Baina benetan lan egin, 40 batek egin dute.

—Alfabetatzaileari eskatzen zaiona ikusiaz, ikus zagan alfabetatzaileari zer eskatzen diozuten lehen maila honetan.



—Kursoa bukatzerako, 24 zati hoiak irakurtzen jakin dezala, euskalki differenteak ezagutu ditzala, eta ohitu dedila. Eta behin betirako uxa ditzala prejuizioa sikolojikoak ora.

—Alfabetatze-ikastaro hauek nun eman dituzute?

—Gipuzkoan eta Bizkaian. Herri askotan.

—Ze jende-klase bildit da?

—Ez dakigu. Dakizunez, numero-falta da nagusi euskal alorrean. Horregatik estadistika-sail bat jarri nahi dugu. Tekniko bati eman digu. Personaren egoera eta euskerara, estudiatu nahi da.

—Zenbat pasatu dira ikastaro hoietatik?



EUSKALTZAINDIA
ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

EUSKALTZAINDIAK dio

euskalduneri euskeraz irakurri eta idazten irakasteko gai dela.

Euskaltzainburuak

Bilbon

Araren emen Euskaltzaindiak lenengo irakastaldian parte artu zutenel emandako txartela, karneta, Aurrera egindiran saioetan onelakoak zahardu dira azterketa batzuek egin ondorenean.

—Fruiturik onenak nun?

—Bajütik jota 3.000 bat irakurle. Baina ez daukat numeroak jarzterik.

—Goierri. Hemen urte guzian jardun ziran. Eta gero Eibarren. Urolakoak eta Bergara aldekoak erdi-purdizka egin dute. Noski, lehenengo pausoak ziran.

—Jendea begira: prolemarik nausiena?

—Egin dan toki guzietan lehenengo mailla egin da, ezta?

—Asistentzia, iraupena.

—Zergatik?

—Bai. Bigarrenaren pentsatzen gaudela. Baina oraingoz lehenengoak gerra asko eman digu. Eta askoz ere zailagoa da bigarrena irakaslearen aldetik. Irakasleari zer irakatsi? Eta bigarrenakin hasteko planifikazio kultural oso bat behar dugu. Alfabetatzeatik kanpo beste gauza batzuk eskatzen ditu: tekstoak..., hemen gaitak erakutsi behar dira zuzenki, ez lehenengoan bezala osagarri legez.

—Lehen aipatutakoa: propaganda-eraketa. Eta gero jendeak behar hau subjektiboki senditzen ez dualako. Objektiboki ba dago behar hori.

—Euskaltzaindiaren barruan dago taldea bera?

—Bai. Eta hain zuzen Baionako Euskaltzaindiaren azkeneko bileran hautatu ziran lehendakaria eta idazkaria.

—Alfabetatze-mota bat bera da guzientzako eta toki guzietarako?

—Ikastaro hau egitea kobratzen al duzute?


—Hasieran bai. Baina legegizotzen eta besteengan ere pentsatu beharra dugu.

—Hutsa. Bakoitzari karpeta bat ematen zaiolako. Hortik apenas gertatzen zaigun dirurik.

—Zenbat herritan egin da?

—40-50 izango dira.

JOAN MARI TORREALDAY



Juan San Martin, Irigaray eta Rikardo Arregi, euskaltzaindiako jaunak, euskal-alfabetatze saioetan jardundako gizon bati txartela eskeintzen.